EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua
gogora
Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos

# JUSTIFIKAZIO-MEMORIA TEKNIKOA

# GIPUZKOAKO PROBINTZIAKO ARTXIBO HISTORIKOAREN FUNTSEKO ESPEDIENTEAK DIGITALIZATZEA

(Exp. Nº 78GO/73S/2026)

1.- KONTRATUAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA .....3
2.- KONTRATATZEKO BEHARRA .....3
3.- ESLEITZEKO MODUA ETA SORTATAN BANATZEA .....3
4.- ARAUKETA HARMONIZATUKO KONTRATUA.....3
5.- KONTRATAZIO ORGANOA.....3
6.- ZUZENDARITZA SUSTATZAILEA .....3
7.- CLASIFICACIÓN DE LA PRESTACIÓN .....4
8.- TRAMITACIÓN ANTICIPADA.....4
9.- NÚMERO DE REFERENCIA EN LA CPV.....4
10.- RELACIÓN ENTRE LA EMPRESA ADJUDICATARIA Y LA DIRECCIÓN PROMOTORA.....4
11.- INDARRALDIA.....5
12.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA .....5
13.- BALIO ZENBATETSIA .....5
14.- ORDAINTZEKO MODUA .....6
15.- KAUDIMEN- ETA SAILKAPEN-IRIZPIDEAK.....6
16.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK .....6
17.- ESKAINTZA ANORMALKI BAXUEGIAK .....7
18.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA .....7
19.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK .....7
20.- LANAK JASOTZEKO EPEA.....7
21.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA .....8
22.- BEHIN BETIKO BERMEA.....8
23.- PRESTAZIOEN BERME-EPEA .....8
25.- AZPIKONTRATAZIOA .....8
26.- KONTRATUA ALDATZEA .....8
28.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA.....9
29.- CONDICIONES PARTICULARES A TENER EN CUENTA EN EL PLIEGO DE CLÁUSULAS PARTICULARES .....10
30.- LANAK ZUZENTZEA ETA ADMINISTRAZIOAK EGIAZTAPENAK EGITEA.....11
31.- JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK.....11

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Agiri honen helburua da jurisdikzio bereziek (Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala [1937-1939] eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Instrukzioko Epaitegia [1939-1942]) sortutako espedienteak digitalizatuko dituen enpresa baten zerbitzuak kontratatzea, bai eta Gerra Zibilean eta diktadura frankistan preso egondako pertsonen espedienteak digitalizatzea ere, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan gordetzen direnak.

Digitalizatzeko geratzen diren irudien kopurua eta kalitatea LPZn zehazten dira. Lan hori egiteko, bi digitalizatzailek eta prestakuntza espezifikoa eta beharrezko makineria duen laguntzaile batek osatutako taldea kontratatuko da.

Lan hori Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legeak 4.3 artikuluan esleitzen dizkion kontserbazio- eta ikerketa-jarduketen barruan sartzen da. Era berean, Gogoraren ildo estrategikoen barruan eta Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko irailaren 28ko 9/2023 Legearen IX. kapitulua betez (Euskadiko memoria historikoaren dokumentuei buruzkoa), Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak Euskadiko memoria historikoaren dokumentuak aurkitu, hautatu, eskuratu eta gorde behar ditu, bai eta dokumentazio hori herritar guztientzat eskuragarriago egin ere. Lan horren zati bat funts horiek digitalizatuz lortuko da.

## 2.- KONTRATATZEKO BEHARRA

Gogora Institutuak ez du langile nahikorik lan hauek aurrera eramateko. Era berean, digitalizazio hau beharrezkoa dute Gogorako teknikariek ikerketak aurrera eramateko eta erakunde honek dituen funtzioak bete ahal izateko. Gauzak horrela, digitalizazio-zerbitzu espezializaturik ez dagoenez, lan hori egiteko baliabide fisikoak eta giza baliabideak kontratatzea erabaki da.

## 3.- ESLEITZEKO MODUA ETA SORTATAN BANATZEA

Ez dagokio. Kontratuaren xedeak ez du aukerarik ematen lotetan banatzeko. Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak unitate operatibo edo funtzional bat dira; hau da, elementu banaezinak dira helburu bera lortzeko.

## 4.- ARAUKETA HARMONIZATUKO KONTRATUA

Ez dagokio, ez baitu Legeak aurreikusten duen kantitatea gainditzen.

## 5.- KONTRATAZIO ORGANOA

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzko azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuak 11.2.k) artikuluan jasotzen duenez, Institutuaren zuzendaria izango da Institutuaren kontratazio-organoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak Gobernu Kontseiluari eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailari emandako ahalmenei kalterik egin gabe.

## 6.- ZUZENDARITZA SUSTATZAILEA

Halaber, lehen aipatutako azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuaren 11.2.b) artikuluan ezartzen denez, Institutuko zuzendariari dagokio erakundeen arteko harremanak garatu eta gauzatzea eta memoria-politikak integratzea.

## 7.- CLASIFICACIÓN DE LA PRESTACIÓN

SPKLren 17. artikuluan oinarrituta, zerbitzu-kontratuaren barruan kalifikatzen da.

## 8.- TRAMITACIÓN ANTICIPADA

Bai, lanak 2027ko urtarrilaren 4an hastea aurreikusten da.

## 9.- NÚMERO DE REFERENCIA EN LA CPV

Kode nagusia: 79811000-2; osagarria: 92500000-6.

## 10.- RELACIÓN ENTRE LA EMPRESA ADJUDICATARIA Y LA DIRECCIÓN PROMOTORA

Enpresa esleipenduna zuzenean arduratuko da bere langileen lanak antolatzeaz, aita zuzendaritza ahalmenez ere.

Enpresa-jardueraren berezko arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak bere gain hartuko ditu. Horrela, enpresa esleipendunarentzat modu mugagabean edo aldi baterako lan egiten duten pertsona guztiak enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango dira, eta haren mende egongo dira, funtzionalki zein organikoki. Beraz, pertsona horiek ez dute inolako lan-loturarik Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin, eta enpresa esleipenduna izango da gizarte-, lan- eta zerga-gastuen arduraduna, indarrean dagoen araudiaren arabera. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak ez du inolako erantzukizunik izango arlo horretan. Enpresa esleipendunak eta Administrazioak pertsona bat izango dute bien arteko harremanari eusteko.

Era berean, enpresa esleipendunean lan egiten duten langileen edo enpresa horretan lan egiten duen beste edozein pertsonaren ekintzen edo ez-egiteen ondorioz hirugarrenei kalterik eragitea ez da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren erantzukizuna izango.

Baliabide materialei dagokienez, enpresa esleipendunak eskatutako lana egiteko behar diren baliabide propioak izango ditu (tresnak eta materialak), eta kontratatutako jarduera garatzeko erabiliko dira.

## 11.- INDARRALDIA

8 hilabete iraungo du.

Hasiera data: 2027ko urtarrilak 4.

Luzapena: ez.

## 12.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

9/2017 Legearen 100. artikuluaren arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratazio organoak konprometitu dezakeen gastuaren gehieneko muga izango da. Aurrekontu orokor horren barruan, lizitatzaileak proposatutako prestazioen kostua ez ezik, BEZa ere sartuko da.

Beraz, aurkeztutako eskaintza ekonomikoa kontuan hartuko da enpresaren zuzeneko eta zeharkako kostuak kontuan hartuta, oinarrizko aurrekontua gainditu gabe. Lege horren 100.2 artikuluak zuzeneko eta zeharkako kostuak eta gainerako gastuak banakatzeko betebeharra jasotzen du.

Jarraian, aurrekontu banakatuaren kalkulua zehaztuko dugu:

a. Zuzeneko kostuak (% 76)
b. Zeharkako kostuak (% 5)
c. Egitura-gastu orokorrak (% 13)
d. Mozkin industriala (% 6)

## 13.- BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren prezioaren zenbatespena kostuen ikerketatik eta zerbitzu hori kontratatzeko aurreko kontratazio espedienteetan metatutako esperientziatik ondorioztatzen da; horrela, merkatuko egungo balioetara egokitzen diren prezio lehiakorrak izatea bermatzen da, eta sektore ekonomiko horretan jarduten duten enpresen lehia askea ahalbidetzen du.

Kontratuaren balio zenbatetsia, 59.977 € da (BEZik gabe).

Kalkulu-metodoa:

| | |
|---|---|
| Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe) | 59.977 |

| | |
|---|---|
| Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe) | Ez dagokio |
| Luzapena (BEZik gabe) | Ez dagokio |
| **BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA** | **59.977** |

## 14.- ORDAINTZEKO MODUA

Zerbitzuen fakturazioa bi hilean behin egingo da, lanak amaitu eta baliozkotu ondoren eta egindako lanen txostena aurkeztu ondoren. Txostenak izan beharreko gutxieneko atalak PPTan batzen dira. Gogorako Zuzendaritzak oniritzia eman beharko dio txostenari.

## 15.- KAUDIMEN- ETA SAILKAPEN-IRIZPIDEAK

Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 159.6 SPKL prozedura ireki sinplifikatu laburtuetan, lizitatzaileak salbuetsita daude ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzetik.

## 16.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau esleitzeko prozedura irekia izango da, gaitutako enpresaburu interesdun guztiek berdintasun- eta gardentasun-baldintza berberetan proposamen bat aurkezteko aukera izan dezaten.

SPKLren 159. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta kontratuaren balio zenbatetsia kontuan hartuta, egokitzat jotzen da prozedura ireki sinplifikatu laburtua erabiltzea.

## 17.- ESKAINTZA ANORMALKI BAXUEGIAK

Ez da beharrezkoa.

## 18.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa esleipendunak genero-ikuspegia txertatu beharko du kontratua gauzatzeko fase guztietan, eta komunikazio inklusiboa bermatu beharko du, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginez komunikazio eta euskarri guztietan eta Administrazioarekin ahoz edo idatziz dituen harreman guztietan. Gainera, zerbitzua ematean sortzen diren irudiak inklusiboak izatea sustatu beharko du.

Kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu beharko du tratuan, enplegua lortzean, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, azkentzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolaketan. Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak neurriak hartuko ditu kontratua egikaritzeari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzen laguntzeko.

Diseinu eta jarduera guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleak, oharrak eta komunikazioak barne) EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliz egin behar dira, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz.

## 20.- LANAK JASOTZEKO EPEA

Eman beharreko zerbitzuen ezaugarriak kontuan hartuta, egindako lanen txostena aztertu ondoren ordainduko da (ikus PPT). Nolanahi ere, irudi guztiak AKPPn eta PPTn ezarritakoaren arabera digitalizatuta egon beharko dira azken ordainketa egiteko.

## 21.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da behin-behineko bermerik eratu behar.

## 22.- BEHIN BETIKO BERMEA

Ez da behar, SPKLren 159.6 artikuluaren arabera.

## 23.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Gauzatu beharreko prestazioen izaera eta edukia kontuan hartuta, ez dagokio kontratu honetan SPKLren 103. artikuluan aurreikusitako prezioen berrikuspena onartzea; izan ere, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan behar besteko zabaltasunez aurreikusi dira giza baliabideen eta baliabide teknikoen kostuak, enpresa-onurak eta kontratua indarrean dagoen bitartean gerta daitezkeen gainerako egoerak, eta, beraz, kontratu hori indarrean dagoen bitartean ez da esleipendunaren kalterako izango esleipenetik erator litekeen prezio-distortsio justifikaturik.

## 25.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du SPKLren 215. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako zeregin hauek izan ezik: - Zerbitzua koordinatzeko eta plangintza gainbegiratzeko zereginak, funtsezkoak baitira kontratua behar bezala gauzatzeko.

## 26.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aldaketarik aurreikusten.

## 27.- KONTURAKO ORDAINKETAK

Ez da behar.

# 28.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Enpresa lizitatzaileek eta esleipendunak konpromisoa hartzen dute, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua garatzen du, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa), informazio pertsonalaren tratu konfidentziala emateko, eta informazio hori zaintzeko eta beren ardurapeko langileei ez zabaltzeko, salbu eta erakunde horrek idatziz baimena ematen badu. Betebehar horrek indarrean jarraituko du, kontratua amaitu edo deuseztatu bada ere.

Kontratatutako erakundeak ezin izango ditu kontratatutako zerbitzuaren datuak beretzat erabili, ezta hirugarrenei eman ere, organo sustatzailearen berariazko baimenik gabe. Horretarako, esleipendunak, aurkeztu beharreko elementuak entregatzen dituenetik aurrera, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren titulartasuna aitortu eta ziurtatu beharko du, hala eskatzen zaionean.

Kontratatuko diren zerbitzuen azken erabiltzaileei buruz Administrazioak lagatako datu pertsonalei dagokienez, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du datu horiek proiektu honen xedearekin lotutako helburuetarako soilik erabiltzeko, haien pribatutasun eta konfidentzialtasun osoa bermatuz. Beraz, zerbitzua ematen amaitu ondoren, enpresa esleipendunak Administraziotik jasotako datuak ezabatzeko konpromisoa hartzen du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak ezartzen duten bezala.

Bestela, sekretu profesionala urratzearen ondoriozko kalte-galerak direla-eta, enpresa esleipendunak kalte-ordaina eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta eragindako pertsonei.

## 29.- CONDICIONES PARTICULARES A TENER EN CUENTA EN EL PLIEGO DE CLÁUSULAS PARTICULARES

Enpresa esleipendunak honako exekuzio-betekizun hauek bete beharko ditu, gizarte- edo enplegu-baldintzei dagokienez:

A) **Hizkuntza-betekizunak:** Erakunde esleipendunak EAEko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko eta koordinatzeko gaitasuna izan behar du, idatziz zein ahoz.

B) **Irudi instituzionala:** ekitaldietan eta gainerako lanetan Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren irudi korporatiboa erabiliko da, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren jarraibideen arabera.

C) **Genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea:** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, enpresa esleipendunak kontratua gauzatu beharko du genero-ikuspegia txertatuta emandako zerbitzua gauzatzeko fase guztietan, eta komunikazio inklusiboa bermatu beharko du. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo du komunikazio eta euskarri guztietan eta Administrazioarekin ahozko edo idatzizko harreman guztietan. Gainera, zerbitzua ematean sortzen diren irudiak emakumeen eta gizonen inklusiboak izatea sustatu beharko du**.**

Kontratua sustatzen duen zuzendaritzak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eskatu ahal izango du honako hauei buruzko informazioa:

- Kontratuaren exekuzioari atxikitako langile bakoitzaren lan-baldintzei buruzko datuak.
- Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa bere gain hartutako lan-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa. Indarreko legeriaren arabera dagokion moduan aurkeztuko

dira, kopia eskaneatuaren bidez, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen denetik zenbatzen hasita.

## 30.- LANAK ZUZENTZEA ETA ADMINISTRAZIOAK EGIAZTAPENAK EGITEA

Kabinetearen eta Hedabideen Zuzendaritzak agindutako lanak zuzentzeko eskumena izango du, eta kontratuaren indarraldian sortzen diren gorabeherak konpontzeaz arduratuko da.

Kontratua gauzatzen den bitartean, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak lana zuzena dela egiaztatu ahal izango du, administrazio-klausulen agirian, plegu teknikoen agirian eta enpresa esleipendunak egindako eskaintzan deskribatutakoaren arabera garatzen dela egiaztatzeko. Kasu horietan, ezarritako epearen barruan egin beharreko zuzenketak egiteko konpromisoa enpresa esleipendunak hartzen du.

## 31.- JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Kontratazioarekin batera, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak eskuratuko ditu ekonomikoki ustia daitezkeen jabetza intelektualeko eskubideak, baita lana edozein fasetan osatzen duten dokumentu eta elementuetatik eratorritako gainerako eskubideak ere (bereizgarriak edo elementu bereizgarriak barne). Eskubide horiek erreprodukzioari, banaketari, komunikazio publikoari, eraldaketari eta ekonomikoki ustia daitezkeen gainerakoei dagozkie, modu unibertsalean, hizkuntza eta prozedura guztietan eta legez ezarritako epean jabari publikoan sartu arte, jabetza intelektualari buruzko araudiaren arabera xedaezinak diren baldintzetan eta mugekin.

Kontratistak edo lana gauzatzen parte hartu duen edozein pertsona fisikok ezin izango du lana bere onurarako erabili, ez eman (osorik edo zati batean), ez argitaratu (osorik edo zati batean) hirugarrenei. Hori guztia, egile-eskubide moralei eta/edo

asmatzaile gisa aitortua izateko eskubideari kalterik egin gabe, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan edo Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Kontratista izango da betebehar horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte-galeren erantzulea.

Bilbon, sinadura elektronikoaren datan

Fecha: 2026.11.04
14:29:20 +01'00'

Izpta.: Alberto Alonso Martín

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria